BELDUR BARIK #LEHIAKETA

BELDUR BARIK JARRERA 2015

LEHIAKETAREN OINARRIAK

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARI EZ
NO A LA VIOLENCIA CONTRA LAS MUJERES

EMAKUNDE
EMAKUMEEN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

BULTZATZAILEAK
IMPULSAN

BFA DFB
Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Gipuzkoako Foru Aldundia

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

EUDEL
EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

BERDINSAREA

LAGUNTZAILEAK
COLABORAN

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

eitb

1. LEHIAKETAREN HELBURUAK

Beldur Barik programak Beldur Barik Jarrera! lehiaketaren 6. edizioa antolatu du. Lehiaketa honetan, emakumeek jasaten duten bereizkeria-egoerari aurre egiten dioten neska-mutilen arte-adierazpen mota oro onartu, baloratu eta bultzatzen da. Lan horiek errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, erantzukizunean eta indarkeria sexistaren gaitzespen irmoan oinarritutako jokabide eta jarrerak izan behar dira.

Parte hartzen duten proiektuek Beldur Barik jarrera islatu behar dute. Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak gainditzeko, eta harreman askeak, errespetuzkoak, parekideak, anitzak eta ez-sexistak eraikitzeko konpromiso pertsonal eta kolektiboa erakutsi behar dute. Kalitate tekniko edo artistikoaren gainetik, mezuaren kalitatea baloratuko da, nesken ahalduntzetik gogoetak eta eztabaidak sortzeko gaitasuna, eta mutilen konpromisoamatxismoaren aurka.

Zer da Beldur Barik Jarrera?

1.Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak gainditzeko, eta harreman libre, errespetuzkoak, parekideak, anitzak eta ez-sexistak eraikitzeko konpromiso pertsonal edo kolektiboa.

2.Neskak ahalduntzea eta beraien autodefentsarako gogoetak zein eztabaidak sortzen dituzten mezuak.

3.Mutilek, banaka nahiz taldean, ezberdintasunezko eta indarkeriazko egoeren aurrean jarrera aktibo eta konprometitua dutela erakusten dituzten mezuak. Sexismoaren aurkako jarrera aktiboa eta arduratsua sustatzen dituzten mezuak, korporatibismo maskulinoarekin haustearekin batera.

4.Indarkeriaz hitz egiterakoan, estereotipoak gainditu behar dira. Hau da, ez da bikotekidearengandik edo bikotekide ohiarengandik datorren indarkeria fisikoaz bakarrik hitz egin behar.Balioetsiko da jende gazteak egunerokoan bizi dituen indarkeria sexistaren adierazpenak, testuinguruak eta espazioak identifikatzea.

5.Beldur Barik Jarrera proposatzea indarkeria matxistaren aurrean, drama, sentsazionalismoa edota emakumeak biktima baliogabetu gisa aurkezten dituzten mezuak gaindituta.

6.Ikusgarri egitea ezberdintasunak indartzen dituzten faktoreak, eta baita kultura matxistak erabiltzen dituen indarkeria mota desberdinak ere.

7.Estrategia argiak proposatzea ezberdintasunei zein indarkeria sexistari aurre egiteko.

8.Originalak izan behar dira, bai tonuan, bai gaian, bai mezua emateko moduan.

Adierazpen artistiko mota oro onartuko da, baldin eta ikus-entzunezko formatuan aurkezten bada: flashmob, kamera aurrean errezitatutako poemak edo irakurritako gogoeta-testuak, argazkiak, argazki-muntaiak, fotonobelak, lipdubak, dantza, film laburrak, animazio proiektuak, proiektuak edo artelanak bideoan aurkeztea, performanceak eta kaleko esku hartzeak, etab.

2. PARTE HARTZAILEAK

Euskal Autonomia Erkidegoko 12 eta 26 urte arteko neska-mutilek parte hartu ahal dute, bi kategoriatan:

1. kategoria: 12 – 17 urte
2. kategoria: 18 – 26 urte

Banaka zein taldeka parte hartu ahal da, ikastetxe gisa, ikasgela gisa edo elkarte gisa.

Taldeko norbaitek 18 urte edo gehiago baditu, proiektua 2. kategorian sartuko da zuzenean.

Lehiaketan aurkezten diren 18 urtetik beherako gazteek oinarri hauetako **1. edo 2. eranskina** bete eta aurkeztu behar dute. **(informazio gehiago oinarrietako 5. puntuan).**

3. AURKEZTU DAITEKEEN PROIEKTU KOPURUA

Pertsona eta talde bakoitzeko, gehienez, 3 proiektu aurkeztu daitezke.

4. AURKEZTEN DIREN PROIEKTUEK BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

· Proposamenek lehiaketaren helburuari erantzun behar diote: indarkeria sexista prebenitzea. Proposamenen edukiek helburuarekin zerikusirik ez badute, edo horren aurka egin zein kalterakoak badira, lehiaketaren antolatzaileek lana ez onartzea erabaki dezakete.

· Proposamenak originalak izan behar dira, hau da, inori plagiatu edo kendu gabekoak. Horren susmorik badago, autoretza frogatzeko eskatu ahalko da.

· Proiektuak ezin izango dira izan beste jaialdi edo lehiaketa batzuetara aurkeztutakoak.

· Piezak euskaraz, gaztelaniaz, bietan, edo beste hizkuntza batean aurkeztu ahal dira (azken kasu horretan, euskarazko edo gaztelaniazko azpitituluekin).

· Proiektuek gehienez 5 minutu iraungo dute, kreditu-tituluak barne.

· Musika edota irudiak erabiliz gero, egile-eskubiderik gabekoak erabiltzea gomendatzen da (hau da, copyleft lizentzia daukatenak, edo zuek sortuak direnak). Egile-eskubideak dituzten abestiak edo irudiak erabiliz gero, parte hartzaileak bere gain hartuko ditu bideoa igo deneko plataformak edo autoretza eskubideak dituenak bideoaren aurka hartutako neurriak. Era berean, egiaztatzen bada jabetza intelektualaren araudiaren urraketa sortu dela, antolakuntzak lana ez onartzea erabaki dezake.

· Proiektu guztiak ikus-entzunezko formatuan aurkeztu behar dira, bideo-plataforma baterako esteka bat jarriz(Youtube edota Vimeo).

5. NOLA PARTE HARTU

Deialdi honetan parte hartu nahi duten pertsonek osorik bete beharko dute www.beldurbarik.org webgunean dagoen formularioa (lehiaketaren atalean, oinarri hauekin batera). Behin formularioa beteta eta plataforma bidez igorrita, mezu bat azalduko da WEB gunean adieraziz izen ematea modu egokian egin dela. Horretaz gain, erantzun automatikoa bidaliko da erraztutako email helbidera baieztatzeko lana jaso dela.

Dena den, lehiaketan parte hartzeko baldintza guztiak betetzen direla egiaztatu arte (lehiaketako oinarrien 4. atala), Beldur Barik Jarrera! -ko antolatzaileek ez dute lana Beldur Barik webgunean ez eta sare sozialetan ere, erakutsiko.

Beste betekizun batzuk:

· Lehiaketara aurkeztutako edozein proiektutan 18tik urtetik beherakorik egotekotan, oinarri hauetako 1go eranskina egoki bete eta aurkeztu beharko du. (* ikusi salbuespenak).

· Pertsonaren edo taldearen izena, kategoria eta udalerria bideoaren barruan edota Youtube edota Vimeo plataformetako deskribapenean adierazi behar dira.

· Sinatutako baimenak web bidez betetako formularioan erantsi beharko dira, dagokion atalera igota.

** Salbuespenak: Taldeko lana eskola edo ikasgela gisa aurkezten bada, 2. eranskina erantsi web bidezko formularioan. Dokumentua betetzearen ardura zentroarena izango da, kontuan izanik ikastetxea delaadingabekoen baimenak kudeatzearen arduraduna.*

Lana elkarte edo gazteleku gisa aurkezten bada, jardueraren arduradunak jaso behar ditu baimenak eta denakbatera bidali.

Horretaz gain, Debako Beldur Barik lehiaketan honako hauek parte hartzeko aukera izango dute:

1. **Kategoria: 12 – 17 urte.**
2. **Kategoria: 18 – 26 urte.**

(* Deban erroldatuak baino ez dira kontuan hartuko)

6. JASOTZEKO EPEA

Lehiaketa irekitzeko eta lanak jasotzeko epea 2015eko irailaren 11an hasiko da eta 2015eko azaroaren 11an amaituko da (biak barne).

7. SARIAK

1. kategoriako saria: 500 €
1. kategoriako aipamen berezia: 300 €

2. kategoriako saria: 500 €
2. kategoriako aipamen berezia: 300 €

Saria ikus-entzunezko ekoizpen onenari*: 300 €

Herriaren saria*: 300€

Goian deskribatutako sariei zerga-atxikipen egokia aplikatu zaie dagoeneko. Udalerriek antolatzen dituzten lehiaketa edo sariek ez dute kenduko lehiaketa honetan parte hartzeko aukera.

** Ikus-entzunezko ekoizpen onenaren saria Beldur Barik Jarrera! mezua adierazteko kalitatezko baliabideak edota kode artistikoak erabiltzen dituen lanari emango zaio (bi kategorietako edozeinetan aurkeztua).Lehiaketako antolakuntzak saria hutsik izendatzeko eskubidea du.*

*** Herriaren saria bi kategorietako edozeinetan aurkeztutako lanei ematen zaien saria da. Lan horiek Beldur Barik Jarrera! lehiaketako antolatzaileek aurretik hautatutakoen artean egon behar dira.*

Deabako SARIAK:

1. **Kategoriako saria (12 – 17 urte): 100€**
2. **Kategoriako saria (18 -26 urte): 100€**

8. EPAIMAHAIA

Antolakuntzak epaimahai bat izendatuko du. Epaimahaia osatzen duten pertsonak proiektu honi lotutako erakundeetako ordezkariek, eta sormenaren, kulturaren eta hezkuntzaren munduetako eta berdintasun politikenalde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako borrokan aritzen diren emakume feministak osotuko dute.

Epaimahaiaren eginkizuna da bi kategorietan aurkeztutako lanei buruz eztabaidatzea eta proiektu irabazleak zein aipamen bereziak hautatzea.

Epaimahaiaren erabakiei ezin izango zaie aurka egin.

Tokian tokiko epaimahaia osatuko da Debako artelanak baloratzeko. Berdintasun batzordeko kideek osatuko dute epaimahaia.

***Oharra: Deban kategoria bakoitzean bi proposamen baino gutxiago jaso ezkero, epaimahaia osatzen duten pertsonak kategoria horretako saria bertan behera uzteko aukera izango dute.**

9. EPAIMAHAIAREN EPAIA

Proiektu irabazle guztien epaia jakitera emango da azaroaren 28an, AMURRIOko udalerrian ospatuko den Beldur Barik topaketan.

Bestalde, herriaren saria herri bozketa bidez izendatzeko funtzionamendua honako hau izango da:

- Epaimahaiak aldez aurretik egingo du aurkeztutako bideoen aukeraketa bat, Beldur Barik Jarrera irizpideak,oinarrien lehen puntuan jasota datozenak, modu egokian adierazten dituzten lanekin, hain zuzen ere. Horiek izango dira herri bozketara pasatuko diren lanak.

- Herriaren saria irabaziko du azaroaren 25eko 23:59tan bozka gehien lortu dituen lanak. Data eta ordu horretan bozketa prozesua itxi egingo da.

- Bozketa Beldur Barik webgunetik jarraitu ahal izango da eta Facebook, Twitter eta Instagram bidez hedatuko da.

- Herria saria irabaziko du azaroaren 25ean, 23:59etan, boto gehien eskuratu dituen lanak irabaziko du.

- Prozesuan irregulartasunik aurkitzen bada (webguneko hackeoa, email masiboak sorrarazteko

aplikazioen erabilera, webgunearen identitatearen ordezkapena), herria saria hutsik gera liteke.

Debako sari banaketa azaroaren 20an izango da, arratsaldeko 20:00etan Agirre jauregiko Ispiluen Gelan.

10. LEGE-ALDERDIAK

Lehiaketako pertsona parte hartzaileek beren ikus-entzunezko proiektuen eskubideak dohainik lagatzen dituzte komunikazio publikorako, erreprodukziorako, hedapenerako eta eraldaketarako, Beldur Bariken katalogoetan, karteletan edota sustapen-piezetan jartzeko, baita proposamenak www.beldurbarik.org webgunean eta sare sozialetako komunikazio kanalean erakusteko ere, maila globalean nahiz tokiko mailan.

Antolatzaileek eskatzen badute, parte hartzaileek beren lan edo proposamena Beldur Barik Topaketan erakutsi, antzeztu edo aurkeztuko dute.

Lehiaketako antolatzaileek ez du erantzukizunik bere gain hartzen baldin eta bidaltzen zaizkion proposamenetan inoren egile-eskubideak urratzen badira; bideoa bidali dutenek izango dute erantzukizun osoa, erreklamaziorik baldin badago. Era berean, parte hartzaileek beren autoretza frogatu beharko dute antolatzaileek hala eskatuz gero.

Lehiaketaren antolatzaileek sariak hutsik utz ditzakete.

EMAKUNDEk, indarrean dagoen Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa betez, jakinarazten dizuzuk emandako datu pertsonalak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen jabetzako datu pertsonalen fitxategi automatizatuetan sartuko direla. Fitxero honetako datuen erabilerabakarra, zeinak ez diren esleituko hirugarren batzuei, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundera mugatzen da.

Nahi baduzu datuakeskuratzeko, zuzentzeko, deuseztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak gauzatu ahal dituzu, Legean aurreikusitakoari jarraituz. Horretarako Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundera jo dezakezu (k/ Manuel Iradier 36, 01005 Gasteiz).

11. ANTOLAKETA

Emakundek antolatu du, eta Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako aldundiek, Berdinsareak eta EUDELekbultzatzen dute, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren, Euskal Herriko Unibertsitatearen eta EITBren laguntzaz.

Informazio gehiago hemen:
www.beldurbarik.org
jarrera@beldurbarik.org
Harremanetarako: 645 73 72 03

Debako informazio gehiago hemen:

- Udaletxean (Berdintasun zerbitzuan)
- 943 192840
- berdintasuna@deba.eus

1. ERANSKINA

AMAREN EDOTA AITAREN, TUTOREAREN* BAIMENA ADINGABEKOEK BELDUR BARIK LEHIAKETAN PARTE HAR DEZATEN.

LEHIAKETAN PARTE HARTZEN DUEN PROIEKTUAREN IZENBURUA: .....

…….....….....andreak/jaunak, adinez nagusi,……...…….....zenbakidun NAN duena, eta…….....jaunak/andreak, adinez nagusi,…….....zenbakidun NAN duena, helbidea.....…….....…….n dutenak,.....…….....telefono zenbakiarekin, ...adingabekoaren (.....urte dituena eta.....e-maila duena) ama / aita (edo tutore), eta beraz, legezko ordezkari, diren aldetik.

ADIERAZTEN DUGU

Ohorerako, Norbanakoaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko,

BAIMENA EMATEN DIOGU, BERARIAZ, gure…….....…….....alabari/semeari, Beldur Barik Lehiaketan parte hartzeko, emakumeen aurkako indarkeriaren prebentziorako, eta lehiaketaren oinarriak onartzen ditugu.

Ados gaudela adierazteko hori guztia sinatzen dugu

……n, ……(e)ko ……..aren ……(e)(a)n

** Gaztearen guraso-ahala duten pertsonek baimena sinatu behar dute (bi badira, biek; zaintza eta babespea guraso bakarrak badauzka, nahikoa da beraren baimena). Izatezko edo zuzenbidezko banantzeen eta dibortzioen kasuetan, zaintza eta babespea dagozkion pertsonak sinatu beharko du.*

2. ERANSKINA

IKASTETXEAREN EDO ELKARTEAREN BAIMENA BELDUR BARIK LEHIAKETAN ADINGABEKOEK PARTE HARTU AHAL IZATEKO.

LEHIAKETAN PARTE HARTZEN DUEN PROIEKTUAREN IZENBURUA:..... …….....andreak / jaunak, adinez nagusi,...…….. NAN zenbakiarekin, helbidea …….....n, ….....……telefono-zenbakia eta ……....e-maila dituenak, …….. ikastetxearen edo elkartearen arduraduna den aldetik, eta adingabekoen familien edota lege-ordezkarien baimena aurretik jasota:

ADIERAZTEN DU

Ohorerako, Norbanakoaren eta Familiaren Intimitaterako, eta Norberaren Irudirako Eskubidearen Babes Zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko,

BAIMENA EMATEN DIEGU, BERARIAZ, Beldur Barik lehiaketan parte hartzeko, emakumeen aurkako indarkeria prebenitzeko antolatua, eta lehiaketaren oinarriak onartzen ditugu.

Ados gaudela adierazteko hori guztia sinatzen dugu

……n, ……(e)ko ……..aren ……(e)(a)n